

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R A

1996ko uztailak 19

Usurbil, 2. Zenbakia



**USURBILDIK  
PEÑALOSCINTOS-A**



### JAIOTZAK

Norbaitek esan omen zuen urte sasoi guztiak ez direla berdinak izaten. Egia esan, hori behintzat argi geratu zaigu oraingo honetan. Izan ere ,azken hamabost egunetan ez baitugu usurbildar berririk, ez da inor jaio. Ea ba animatzen zareten eta hemendik hila-bete batzuetara orrialde honetan ondorio horren berri izaten dugun. Aurrera!!

### EZKONTZAK



Aspaldi jaiotakoak, eta oraingo honetan beste norabide bat hartutakoak tolosar bat eta usurbildar bat dira. Joan den Ekainaren hamabigarrenean ezkondu baitziren **M<sup>a</sup> Arantzazu Plaza Segurola** usurbildarra eta **Patxi Agirre San Sebastian** Tolosarra. Zorionak, eta urte askotarako.




### HILDAKOAK

Aurpegiaren alde garratza erakustea ere tokatzen zaigu orrialde honetan: ekainaren 27an hil zen Santu Enea auzoan **Margarita Marques Jimenez** anderea 56 urte zituela. Eta uztailaren bigarrenean berriz, auzo berdinean, **M<sup>a</sup> Consolación Sotelo Cabezas** , 86 urteko emakumea zendu zen. Hauetxek hamabostaldi honetako heriotzak.



- |                           |          |                              |          |
|---------------------------|----------|------------------------------|----------|
| • UDALA                   | 34 19 51 | • TAXI GELTOKIA              | 36 21 78 |
| • UDALZAINGOA             | 36 11 12 | • D.Y.A.                     | 46 46 22 |
| • ANBULATEGIA             | 36 20 13 | • GURUTZE GORRIA             | 27 22 22 |
| • UDARREGI IKASTOLA       | 36 12 16 | • GURE- PAKEA EGOITZA        | 37 32 28 |
| • AGERIALDE IKASTETXEA    | 36 38 85 | • GURE-ELKARTEA EGOITZA      | 37 17 51 |
| • OIARDO KIROLDEGIA       | 37 24 98 | • ARRATE EGOITZA             | 36 63 40 |
| • ZUMARTE MUSIKA ESKOLA   | 37 15 94 | • EUSKO TREN INFORMAZIOA - - | 47 09 76 |
| • ETUMETA AEK EUSKALTEGIA | 37 20 01 | • NOAUA! ALDIZKARIA          | 36 03 21 |



**USURBILGO UDALA**

Alc.izkari honek  
Usurbilgo Udalaren  
laguntza jaso du

**Dagoeneko 203 usurbildar  
bazkide ditu Noaua!-k  
Zu ere egin zaitez bazkide!**



**HERRIKO  
DENDA  
ETA  
ZERBITZUAK  
ERABILI**

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua! Kultur Elkarte.  
Kale Nagusia, 27 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. (943) 36 03 21.

**Zuzendaria:** Olatz Altuna. **Kazetariak:**  
Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.

**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari Matxain, Nere  
Amenabar, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain **Administrazioa:**  
Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea. **Erredakzio  
Kontseilua:** Olatz Altuna, Garikoitz Udabe,  
Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia  
Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz,  
Mertxe Olaizola.

**Maketazioa:** Susana Martin. **Argazkia:**  
Joxe Antonio Labaien, Juan Luis Izeta.  
**Informatika:** Pili Lizaso. **Banaketa:** Unai  
Lataillade, Iker Muguruza. **Tirada:** 2.000 ale.  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** eskatua

**Inprimategia:** Antza, Industrialdea 1 - 2,  
20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere  
gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-  
men eta iritzien erantzunik.

## Aurkibidea

2. **Gazi-Goza-Geza** (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak)
4. **Zer irizten?** (Joxe Mari Izeta)
- Ika-mika** (gutunak)
5. **Berriketan** (Freddy Gridley)
- Txirrikitutik** (argazki albistea)
- 6-7. **Kalejiran** (auzoak)
8. **Herorrek esan** (inkesta)
- 9-10. **Santioak**
- 11-12. **Sanestebanak**
13. **Izerdi patsetan** (kirolak)
14. **Porrusalda** (albiste laburrak)
15. **Herriko taldeak** (Ziortza Gazte Taldea)
16. **Agenda**
17. **Komikia** (Manel Bruño)
18. **Lehiaketa-Majerako kondarrak**
19. **Santixabeletako bertso-papererak**
20. **Joxan Artze "Hartzu"**

1977ko hauren arteko  
yoko garbi txapelketako  
jokalariak. Tartean  
Xabier Arregi, Joxe  
Antonio Segurola eta  
Xabier Mikel Errekondo  
txapelkunak.



argazkia: Jakoba

LIZARDI

LIBURUDENDA

Ikastolarako materiala

K/ Etxebeste, 1  
Tel.: 36 11 15

USURBIL  
(Gipuzkoa)

Santioak ondo pasa!

**ERREKONDO  
EGUR ZERRA**

eraikuntzetarako  
tabloi lehorrak  
bertako egurrean

Zubieta 362237

**ORBELDI**  **GENERALI**  
Assicurazioni Generali

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA  
Zbk. 200009

**"ZUREKIN JAI  
HAUETAN GIRO  
JATORRENA  
ASEGURATURIK"**

Arizeta, 1 Tlf:(943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

**P A T R I**

**J A T E T X E A**

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia,6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

# Zer irizten?



**Joxe Mari Izeta  
Hezitzailea**

## Oporrak

**H**aurraren marrakiz betetako karpeta. Hango eta hemengo herri eta herrixketako burruna berdina. Belarrietaraino kargatuta doan zikloturistaren irrifar ulergaitza. Oporrak. Gaur laino euri; bihar sargori; urtea mudatzen doan neurrian, haizeak ere berritasun usai bat dakar, inoiz behar bezala asetzen ez den opor gose hori areagotuz. Urte osoan dugun arrak (planak, ilusioak...) ezin gehiago agur anta. Oporrak. Sukaldeko pertza zaharrak duen balbula horren gisara, guk ere gure "eskapeak" nahi, behar. Drenajea. Eguneroko dinamika mo-

notonoa hautsi, lehertu. Etxearen erdia kotxean sartu, eta... agur Usurbil; maitakor bezain gogai-karri, nere txoko eta txakur. Agur, agur.

Irten, eten... bai, eguneroko bizitzari lotzen gaituen kordela moztu. Atera, aldegin... mudatu, bai lekuz eta bai barruaz. Kamioi zaharraren burrun burruna, olatuen brausta braustarekin aldatu. Labe gurien berotasunetik aldendu, hondartzako guri dauden alaben berotasunari hurbiltzeko. Txori bakoitzak bere hegaldia. Gozoa bezain laburra. Agurtzerako agur esan beharra. Ea hor egun magiko hoiien tragedia. Eroari ere bere erotasunak inoiz une argi bat eskeintzen dion gisara, urtearen gogortasunak opor-rak zor. Bizitzaren ironia. Agurtzerako agur, eta ez da berehalakoan etorriko hurrengo tren.

# i ka-mika

## Santixabel Agenda 96

**A**urtengo "Festetako Agenda 96" bitxia eta polita, azken urte hauetan sortzen zoazten estilokoa. Denak gordetzen ditut, orijinalak baitira.

Baina bi aipamen edo kritika egin nahi ditut:

Bata, UZTAILAK 2 -SANTA IXABEL EGUNA- 11etan MEZA NAGUSIA, **SIESTATXOA TOKATZEN DA.**

UZTAILAK 7 -ZAHARREN EGUNA- 11.30tan MEZA NAGUSIA (**BERRIZ ERE SIESTA**).

Komisioko inori ez al zaio bururatu esaldi hauek mina egin dezaketela?

Badakit kristauei burla egitea

"modan" dagoela baina non geratzen da pertsonari zor zaion errespetua?

Bestetik, gaztelerazko bertsoia ikusterakoan, **burla** hitza etorri zitzaidan burura. Ez ote zarete pasa?

Hementxe doakizue ba nire iritzia, inork ezer galdetu gabe.

**Noaia! dioen batek**

Edonork edozertaz idatz dezake; gutunak gehienez 12 lerrokoak. Helbidea: Kale Nagusia, 27. Tel. 36 03 21. Gutunak ezizenez sina daitzek, baina izen-deiturak eta ENaren zenbakia beharrezkoak dira.



**Elexpe**  
SOLARIUN  
**ileapaindegia**  
Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62

*Peste mak garo*  
**AIZPVRVA**  
OKINDEGIA  
KALE NAGUSIA, 25  
TEL. 36 19 20  
USURBIL

**PORTULARRUME**  
ITURGINDEGIA  
BAINUKO ALTZARIAK  
Kale nagusia, 2  
Tlf. denda: 36 46 37 etxea: 36 52 99

## FREDDY GRIDLEY

Jubilatua

• Nolatan etorri zinen Usurbila?

*Gerra garaian frantses ofizial bat eza-gutu nuen, eta gerra bukatzean bisita-tuko nuela hitz eman nion. Horrela, Frantziako Poitiers herrira iritsi nintzen semearekin 1954ean.*

**Eta Frantziatik gure herrira?**

*Ondoren beherantz jarraitu genuen. Lasartera iritsitakoan, lo egiteko kampin batez galdetu genuen, eta Zubietara bidali gintuzten. Hantxe egon ginen plazako zuhaitzetan kanpin denda muntaturik bi astetan.*

**Eta gustatu egin zitzaizun...**

*Bai, harrezkero urtero etorri izan naiz.*

**Nola burutu zenuten bidaiak?**


*Motoz iritsi ginen honaino.*

**Zer gustatu zitzaizun gehien hemengo gauzetatik?**

*Jendea. Benetan harrিতa gelditu nintzen hemengo jendearen harrerarekin.*

**Zerk bultzatzen zaitu berriro Londonera joatea?**

*Nire etxeak. Museo antzekoa da, aintzinako tresna, pieza, koadroz... beteta daukat. Eta hura guztia*



*ezin dut ekarri hona.*

**Zer duzu nahiago, hamburgesa ala babarrun platera bat?**

*Ez, ez, hanburgesarik ez, mesedez. Londonen nagoenean ere, ez dut inoiz hanburgesarik jaten.*

**Zer jaten duzu, orduan?**

*Ni neroni joaten naiz merkatura jaki freskoak erostera. Sukaldari iaioa naiz. Hemendik joaten den jendea ere harrিতa geratzen da.*

**Zein musika mota gustatzen zaizu?**

*Trikitixa, Ganbara taldea, rock & rolla... eta esku-soinua ere asko gustatzen zait.*

**Zenbat hizkuntza dakizkizu?**

*Oso-osorik ingelesa. Eta gero, euskara, gaztelera, alemaniera eta frantsesa piska bat.*

**Bidaiatzeko zein garraio mota duzu gogokoena?**

*Motorra, dudarik gabe. Baina orain semeak motoan ibiltzeko zaharregia naizela dio, eta ez dit uzten.*

**Umorea, ingelesa ala euskalduna?**

*Euskalduna. Ingelesak askoz ere hotzagoak dira eta bakoitza bere munduan bizi da. Ez dago hemen bezalako harremanik jendearen artean.*

## GIRO APARTA SANTIXABELETAN.

Etxeko txikienek ere beren eguna izan zuten aurten-go Santixabeletan. Argazkian ikus daitekeen bezala, hain txiki ez zirenek ere gozatu zuten ekitaldi honetaz.



argazkia: Joxean

**J**  
XIRIKITUTIK

## XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

**SANTIXABELAK ONDO PASA!**



Galardi ETXEA, s/n  
20170 USURBIL

Tfno. 36 20 52  
Fax 37 02 63



**ZUMETA JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

## KARTA BEREZIAK

Jai eta aste, bazkariak eta afariak  
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"  
3.200 pta.

Zuen zain geratzen gara!

## KALEBERRI



### Ines Kamino

Aurrekoan bezalaxe, orain ere aitzakia bat hartu, eta galdezka ibili gara usurbilgo kale nagusiengan. Galdera honako hau izan da: **zakur kakak** direla eta kalean lurrera begira ibili beharra bidezkoa den, ea hau askotan suertatu zaien herritarrei.

Egia esan behar badut, mota askotako erantzunak jaso ditugu: Batzuek, ez dagoela esku-biderik diote. Jendeari zaborra zakarrontzira botatzen irakasti zaion bezala, zakurren jabeek, hauen eginbeharrak, zelai edo aparteko toki batean egiten erakutsi behar zaiela.

Erantzun gehienak honen bueltan dabilta.

Zakurren jabeen iritzia zein den ere jakin dugu, zera diote: beraiek ezin dutela zakurraren eginbeharra kontrolatu, eta hauek eskatzen ez dakitenez, ez dietela ipurdian kortxo edo hau ixteko zerbait jarriko. Hau izan da jabeetako batzuk esandakoa.

Inkestatutako batek zera gaineratu digu: Gauza bat, txakurrak ezin kontrolatu izatea dela baina, aldi berean, jabeek ez dutela hau konpontzeko borondaterik jartzen. Zera ere gaineratu digu: ez dela zilegi zakur kakak demaplazan edo frontoian aurkitzea. Denok baitakigu bi gune hauetan haurrek jira bueltan ibiltzen direla.

Azken finean, ondorio nagusi bat ere ateratu dugu galdeketa honetatik; zakurrak dituztenek, berez, badakitela hauen eginbeharrak hartu eta zakarrontzi-

ra botatu behar dituztela. Baina zergatik ez dute hau egiten? Beste baterako utzi beharko

Bigarrenik, zuetako asko eta askok jakingo duzuen bezala, **frontoia**ren txapela aldaketa orain hastekoa zen. Azkenean, ordea, urrian hasiko omen dira lan hauetan. Hau ere, poliki poliki aurrera doa.

## TXOKOALDE



### Iñaki Labaka

Euskal Herriko itzulia zela eta txirindularientzako Orioko Benta gaineraino zer nolako "autopista" jarri zuten ikusi eta gero, pentsatzen hasita geunden, geuk ere ez ote genuen etaparen bat antolatuta behar izango auzoko bideak pixka bat txukuntzeko.

Ez eta pentsatu ere; azkenean, udalak, ekaina amaieran, **Txokoalde eta San Esteban arteko bidea** konpontzeari ekin zion. Eta egia esan behar bada, primeran utzi dute aspaldidanik zuloz josita zegoena. Lehen baino maizago erabiliko dugu orain bide hau..

Oinezkoek ibili beharko dute kontuz. Izan ere, kotxe eta txirindulariak ziztu bizian ibiltzen baitira bide honetan.

Lan hauen alde arrosa erakutsi dizuet baina badu ukitu beltzik ere: Zumeta enea eta Galardi tarteko bidea egoera kaskar samarrean egonda, ez berritzeak, lan bikain hau ilundu egin du. Behin hasiz gero, hainbeste urte zain egon ondoren, bide osoa konpondu behar zuten.

Gure belarrietara iritsi denez, dirua izan da arrazoa.

Ajajaina! nahikoa justu dabilta, zenbat galipota beharko zen ba? Egia esan, ohituta gauden bezala, beste aukera baten zain geratu beharko dugu. Ea ba lehenbailehen ikusten dugun bide osoa berrituta.

## ZUBIETA

### Nere Amenabar



Donostia eta Usurbilek **Herri Batzordea** onartu beharko dute Zubietarentzat. Egun, baserri

bat Usurbili dagokion bezalaxe, albokoa Donostiari dagokio. Honek arazoak sortu ohi ditu. Antza denez, arazo hauek ekiditeko sortuko da datorren iraillean batzorde hau.

Batzorde hau plenoan onartu beharko dute Donostia eta Usurbilgo udalak.. Hautagaiak aukeratzeko Donostiako udalak proposatzen duen sistema Senatuaren antzekoa da, hau da, zerrenda irekiekin. Bizilagun bakoitzak bi izen hautatu beharko ditu, nahiz eta azkenean hiru izan udalerrri bakoitzak aukeratutakoak.

Aipatzekoa da baita ere, lehen Batzorde honetako lehendakaritza Donostia aldeko bizilagun bati dagokiola. Lehendakari hau bi urtetarako izango da hautatua.

Idazkaria berriz, Batzordeko kideek aukeratuko dute beraien artean.

Batzorde honek funtzio asko eta ezberdinak izango ditu: Donostiako eta Usurbilgo udalari Zubietak dituen arazo berri ematea beste askoren artean.

## AGINAGA



**Iratxe  
Begiristain**

**A**skotan,  
urrunen  
dauzkagun

gauzetaz konturatzen gara,  
eta begibistan dauzkagunak  
ez ditugu ikusten.

Badaezpada, begibistakoak  
izan arren, eta despistaturen  
bat tartean badago, zera  
esan behar dizuet, Aginaga  
erdian **etxe berri batzuk** egiten  
ari direla.

Dagoeneko, bi pisu dituen  
eraikuntza bat erdi bukatua  
dago. Azken orduko xeheta-  
sun txikiak besterik ez zaizkio  
falta. Honen alboan beste hiru  
etxebizitza ere eraiki dituzte.  
Azken hauek tabikatzen hasika  
dira dagoeneko. Ea ba, azkar  
azkar, Aginagako populazioak  
gora egiten duen.

Aginagako jai batzordeak  
ere badu ohar bat aginagar  
guztientzat: urteroko legez,  
aurten ere, Aginaga mailan,  
**V. Futbol Txapelketa** antolatu  
da. Abuztuaren hirugarren  
egunean hasiko da aipatuta-  
ko txapelketa. Bertan parte  
hartu nahi duenak izena eman  
beharko du ohiko tokietan.  
Ezerren okerrik ez dela abuz-  
tuaren hirugarren egunarekin  
emango zaio hasiera txapel-  
ketari. Ez dakit nik jendea fisi-  
koki urte sasoi honetan punta  
puntan egongo den, (badaki-  
zue, jaika han eta hemen,  
parrandak,...) baina kontuak  
kontu, orain dute aginagarrek  
beraien indar eta ganora era-  
kusteko aukera. Animo beraz!

## KALEZAR



**Begoña  
Zubiria**

**A**urtengo  
**San Juan**  
jaietan espero

zen baino jende gehiago bildu  
da. Umoreak ere ez digu ihes  
egin. Hori ere pil-pilean izan  
dugu aurtengo jaietan. Baina  
honetaz gain bestelako kon-  
tuak ere izan dira; sustoren bat  
edo beste tartean.

San Juan eskeko gauean,  
eskean gindoazen bertsolari  
eta trikitilariekin.batzuek kanta-  
ri, besteak dantzan, tartean  
alferren bat edo beste, eta  
noski, beste batzuk suziriak  
bota eta bota, zalaparta pittin  
bat ateratzea ere legea izaten  
baita horrelako kasuetan.  
Halako batean, kalezarren gin-  
doazela, suziri bat bota eta  
hau gora joan beharrean,  
okertu eta zuzen zuzen etxe  
bateko balkoira joan zen. Egia  
esan behar badut, oraindik ez  
dakigu suziri hone balkoian  
lehertzean, kalterik sortu zuen.  
Baina hori bai, argi gera dadi-  
la nahi gabe izan zela.

Gainerantzean, aparteko  
giroa izan dugu auzoan eta  
jaiak normaltasun osoz pasa  
ditugu.

Seguruenik, zuetako asko  
eta asko kalezarko jai batzor-  
deko norbaiten eskuetan erori  
zarete. **Errifa** kontuarengatik  
diot hau. Bueno, zera argitzea  
gustatuko litzaidake. Zenbaki  
saritua agertu dela, alegia.  
Beraz, lasai asko bota ditzake-  
zue zuen txartelak zakarrontzi-  
ra.

## URDAIAGA



**Leire  
Atxega**

**S**an Esteban-  
darrak gaur  
pozik agertzen

gara. Kanpaiak jotzeko aukera  
ederra dudarik gabe. Azke-  
nean, luzaro itxaro ondoren,  
San Estebadik Txokoaldera  
doan bidea jantzi digute,  
**asfaltatu** digute. Ederki asko  
dakigu gidaritzan ibiltzen gare-  
nok orainarteko zuloetan  
kotxea sartzeak zer min ema-  
ten duen. Mina eta amorra-  
zioda. Majina bat hitz eta esaldi  
atera dira gure ahotatik: "Hau  
duk bide nazkagarria", "Astoak  
ere bide hobetan ibiliko ditun",  
Astopista dirudi horrenbeste  
zulorekin"...

Orain, harro eta burua altxa-  
ta esan dezakegu benetako  
autopista dela. Guk zaindu  
behar dugu orain, auzotar eta  
kanpotarrek, eta noski, ahal  
den neurrian edozein akats  
ikusiz gero jakinaren gainean  
jarri beharko ditugu herriko  
agintari eta langileak.

Eskerrak eman nahi nizkioke  
herriko udalari honelako obra  
ederra bideratzeagatik, eta  
baita asfaltoa botatzen egon  
den "Oarso" empresari ere,  
borondate asko jarri baitute  
lan honetan.

Hori bai, ongi legoke ispilu  
batzuk ere jartzea zenbait  
errebuiltatan istripuren bat  
gertatu baino lehen. Bestetik  
**auzoko jaiak** ere gainean ditu-  
gu. Aurtengo jaiak lau egunez  
luzatuko dira: ostegunetik  
igandera. Gonbidapena luza-  
tuta geratzen da: etor zaitzete  
San Esteban auzoak prestatu-  
rik daukan jaietara.



**Aizpea Ibargoi**

*Santuenea*

**N**i herrian geldituko naiz baina kanpora joatea gustatuko litzaidake. Hemen aspertu egiten naiz noizbehinka eta kanpora irteatea gustoko izango nuke. Hala ere nire gurasoak hemen gelditzen direnez...



**Inaxio Azkoiti**

*Kalezar*

**N**i urte guztian Noporretan egoten naiz, usurbilen hain zuzen ere. Kanpora inoiz ez naiz atera, ezta batere. Zergaitik ez naizen atera? ahhhhhhh?



**José Granados**

*Olarriondo*

**N**ire ustez Nhemeren opor ederrak pasa daitezke, kanpora joan gabe. Hala ere, familia batean aita edo ama kanpoko bada, haren herrira joatea egoki ikusten dut, senitartekoak ezagutzeko.

## Non igaroko dituzu udan oporrak, Usurbilen ala kanpoan?



**Kontxi Etxabe**

*Zubieta*

**G**izona asturriarra dudanez bere herrira joango gara astebete igarotzera. Gainerantzean oporrak Usurbilen egiten ditugu. Inoiz edo behin joan izan gara kanpora, Italiara joan ginen hartan bezala, baina bestela hemen.



**Mila Añorga**

*Kalezar*

**L**andetara Ljoango gara astebete pasatzera. Usurbilen ongi bagaude ere, urtea luzea izaten da eta burua arindu eta lasaitzeko egokia ikusten dugu kanpora joatea. Gastuari dagokionez, kanpinarekin joaten garenez merkeago ateratzen zaigu.



**Juan Bautista Padrones**

*Santuenea*

**N**ik bi aldeetan igaroko ditut oporrak, Usurbilen eta kanpoan. Urte osoan zehar hemen egoten naiz eta uste dut kanpora ere atera beharra dagoela, ongi pasatzera, noski. Beraz, aurten ere kanpora noa, ziurrenik nire herrira.

ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMENDIK  
USURBILGO  
ETXE  
GUZTIETARA  
IRITSI DAITEKE  
☎ 36 03 21

Noaia! etxe edo baserriren batera iritsi ez bada, barkatu. 36 03 21 telefonora deitu eta hurrengo aletik aurrera jasoko duzu

SENIDEREN  
BAT USURBIL-  
DIK KANPO  
BADUZU OPA-  
RITU  
IEZAIOSU  
Noaia! -ko



## DANTZA ETA PELOTA NAGUSI ZUBIETAN

**Z**ubietako jaiak ere iristear daude eta egitarau oparoa prestatu dute gainera. Aurtengo Santio jaietan pelota eta dantza ekitaldien haritik, zer ikusia eta dastatua izango da.

Nork ez du ezagutzen Zubietako errebote plaza? Usurbildar guz-

koa eta zestoa).

Lehenengo ekipoa **Aizpurua I-a, Aizpurua II-a, Mariezkurrena, Garcia** eta **Bengoetxeak** osatuko dute. Eta bigarrena **Zaldua, Amenabar, Kalegain, Cuevas** eta **Segurolak**.

duzue Zubietako errebote plazan.

### Galiziar dantzak

**F**esta hauetako beste ekitaldi berezi bat Sestaako **Noxaxente** dantza taldearena izango da. Galiziar dantzak eskainiko ditu talde honek. Bertako partaideak guraso galiziarren seme-alabak dira. Taldeko koordinatzailea den Manolok adierazi digunez "40 dantzari inguru gara, eta gehienak neskak dira". Gona gorriberdeak, blusa zuriak eta txapelak jantzirik jotak eta muñeirak dantzatuko dituzte Zubietako plazan. Aurretik kalejira batekin giroa alaituko dute.

Santio egunean, arratsaldeko sei terdietako ekitaldian zehar gaita, bonbo, danbor eta pandereta soinuak entzuteko aukera ere izango du Zubietako plazara hurbiltzen den edonork.

tiok dakigu Gipuzkoan errebotea jokatzen den leku bakanetako bat dela, Billabona eta Zubieta baitira pelota partidu horiek jokatzen diren leku bakanak.

Horrez gain, **Yoko-Garbi** elkar-teak 40 urte inguru daramatza kirol hau gazteen artean sustatzen. Bertako taldeek mugaren alde batean eta bestean jokatzen dute. Aurten ere, Iparraldeko txapelketan bi talde izan dira, eta bat finalerdietara iritsi da gainera.

Santio festetarako, bestalde, **Yoko-Garbiko** partaideek desafio partidu erakargarri bat prestatu dute. Talde bakoitzean bost jokalaritako dira, ohi bezala: sakalaria, geldilaria eta hiru zestodunak (pareta, buelta motxe-

Dudarik gabe, uztailaren 25ean, Santio egunean, eguerdiko hamabietatik aurrera desafio erakargarria ikusi ahal izango



## UZTAILAK 24, ASTEAZKENA.

- 20.00etan Jaien hasiera buruhandi, txalaparta, txistulari eta abarrekin.
- 23.00etan IZOTZ taldearekin dantza saioa.

## UZTAILAK 25, OSTEguna, SANTIOEGUNA.

- 9.00etan Esnadeia.
- 11.00etan Meza nagusia, ondoren denontzat hamaiketako egongo delarik.
- 12.00etan Errebote partidua Zubietako bi talde en lehia ikusgai izaki.
- 18.30etan Jatorriz Galiziakoak diren Sestaako "NOXAXENTE" taldearekin Galiziako dantzak.
- 22.00etan Bertsolari saio ederra JOXE LIZASO, JOXE AGIRRE, AITOR MENDILUZE eta XABIER SUKIA bertsolariekin. Gaijartzaile lanetan IBAI ESOAIN arituko delarik.

## UZTAILAK 26, OSTIRALA

- 22.00etan Herri afaria IRUIN sagardotegian. LIZASO eta EGAÑA bertsolariekin batera.

## UZTAILAK 27, LARUNBATA (HAURREN EGUNA)

- 10.00etan Haur joko eta jolasen hasiera.
- 14.00etan Hurren bazkaria, sorpresa eta guzti.
- 16.00etan Jokoen jarraipena
- 18.00etan Buruhandiak.
- 19.00etan Txokolatada eta goxoki banaketa.
- 23.00etan LAIOTZ taldea.

## UZTAILAK 28, IGANDEA

- 9.00etan Esnadeia
- 10.00etan Meza nagusia.
- 16.00etan Gaztetxoan Yoko-Garbi partidua.
- 17.00etan Trial-Sin saioa.
- 18.00etan Antzerki saioa GOAZ taldearekin.
- 23.00etan TRIKI TA KE trikitixa taldearekin dantzaldia.

## UZTAILAK 29, ASTELEHENA

- 6.00etan Oilasko biltzaileen irteera
- 14.00etan Oilasko jokoak

## UZTAILAK 30, ASTEARTEA

- 24.00etan DRINDOTS taldearekin dantzaldia. Atsedendaldian HUTS-HOTS txalaparta taldea

## UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

- 9.00etan Esnadeia.
- 10.00etan Meza nagusia
- 14.00etan Zikiro jana
- 17.00etan Herri kirolak: txingak, aizkora, trontza...
- 23.00etan MAIXA eta IXIAR taldearekin dantzaldia
- 24.00etan Festen amaiera traka eta zezen sukkoa.



## ABUZTUAK 1, OTEGUNA OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

- 6etan** Jaien hasierako txupinazoa eta Oilasko Biltzaileen Irteera.  
**14:00etan** Oilasko Biltzaileen bazkaria.  
**23:30etan** LAIOTZ taldearekin dantzaldia

## ABUZTUAK 2, OSTIRALA HAURREN EGUNA

- 10:30etan** Haur Jolasak.  
**16:30etan** Mozorro Lehiaketa.  
**17:00etan** Haur jolasak.  
**Ondoren** Txokolatada.  
**23:30etan** AKELARRE taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 3, LARUNBATA SAN ESTEBAN EGUNA

- 9:00etan** Esnadeia  
**10:00etan** Plater tiraketa.(egun osoz)  
**10:30etan** Meza Nagusia.  
**Ondoren** Zahagi bat ardo banatuko da ESPU MOSOS TXAPELDUNi esker.  
**Jarraian** PERURENA harrijasotzaileak eta TRONTZAK.  
**14:00etan** Jubilatuen bazkaria INGEMAR eta BERRIOLAren laguntzaz.  
**16:00etan** Mus Txapelketa Ibai-Ondo Elkartean.  
**17:30etan** Bertso saioa.  
-SEBASTIAN LIZASO  
-LAZKANO  
-PEÑAGARIKANO  
-EGAÑA



- Ondoren** Kantaldia.  
**23:30etatik** Rock kontzertua eta ondoren IZOTZ taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 4, IGANDEA

- 8etan** Ibilaldi Neurtua.  
**9:00etan** Esnadeia  
**11:00etan** Meza Nagusia.  
**Ondoren** Usurbilgo Dantzariak eta goiza umorez agurtzeko trikitilariak.  
**14:00etan** BAZKARI HERRIKOIA  
-TRIKITILARIAK  
-JOSUNE ARANBURU  
-HERRIKO BERTSOLARIAK-TXALAPARTA  
-TOKA TXAPELKETA (Herri mailan)  
**18:00etan** Lezoko Dantzarien eskutik, dantza ikuskizuna.  
**23:00etan** MAIXA TA IXIAR.



## HERRI BAZKARIA: TRADIZIOA BERRESKURATUZ

**S**an Estebango jaiak gero eta Sgertuago dauzkagu. Egia esan, usurbildar askoren buruetan jira bueltan dabiltzan jaiak izaten dira. Askoren iritziz, herriko onenak. Eta ez dugu inor mindu nahi, auzo bakoitzak bere nortasuna baitu.

Baina dudarik gabe, badu Urdaiaga auzoak xarma berezi bat. Agian kokaguneak berak eskaintzen digunak lilurutzen gaitu. Egia esan, paraje ederrean



dagoen auzoa da.

Dagoeneko gainean ditugu bertako jaiak ere. Abuztuaren lehendabiziko egunez hasiko dira eta lau egunez luzatuko. Aurretik Santioek utzi dizkiguten aje eta ondorioak gainean izango ditugu, baina ez du batere inporta. Guztiak gainditzeko prest gaude.

Jai Batzordeak antolatatu duen egitarauan denetarik aurkituko dugu. baina ekintza guztien artean bat nabarmentzea tokatzen zaigu: Herri Bazkaria.

Honen tradizioa eta ohitura aspalditik dator. Garai batean San Esteban egunarekin eta jaietako igandean ikaragarriko jaiak izaten zen. Eta ez pentsa San Estebandarrek bakarrik hartzen zutenik parte. Usurbildarrentzat ere egun haundia izaten zen.

Aipatu bi egun hauetan Usurbildarrak, familia antolatuta, bazkari eta guzti igotzen ziren ton-tor ederrera. Bertan, goizeko ekitaldien ondoren, paraje honek eskeintzen dituen zelai zabal eta

ederrak erabiliz, bazkari ederra egiten zuten. Tortila patata ederrak ikusten omen ziren. Ia ia toki-rik ere ez omen zen egoten. Izan ere tradizio hau asko eta askok jarraitzen baitzuten.

Baina ez pentsa hemen amaitzen denik kontua. Arratsaldeko ekitaldien ondoren afal garaia iristen zen, eta orduan, Aginagarrak azaltzen ziren. Hauek ere ezin jairik gabe geratu. Afaldu ondoren, denak elkarrekin Txokoladera,

antolatatu ziren hainbat usurbildar eta guztiek eman zuten aspaldiko partez usadio hau berreskuratze-ko lehendabiziko pausoa. Jai giro eta umorerik ere ez zen falta izan bertan.

Aurten ere aukera hau badugu usurbildarrok. Abuztuaren laugarrenean eguerdi aldean bertara hurbiltzea besterik ez duzue. Edaria, iaz bezala, Jai Batzordeak jarriko du. Ondoren, ekitaldi ezberdinei egingo zaie leku: bertan izango baitira trikitilariak, bertsolariak, Josune Aranburu kantari, txalapartariak, toka,...

Egun eder bat pasatzeko aukera paregabea beraz. Eta noski, bide batez, lehen hain arrakastatsu eta tradizio handiko zen jai hau berreskuratzen urrats bat emango duzu.

Gainerantzean, ohiko egitura dute 96ko San Estebanek: ohitura-ri jarraituz oilasko biltzaileek zabalduko dituzte jaietako ateak. Fresko fresko, baserriz baserri ibiliko dira auzoko gazteak hara eta hona. Gauean Laiotz taldearekin dantza egin ondoren haurren txanda etorriko da. Jolasak, sariak, buru haundiak, eta Akelarreraren kantuen ondoren San Esteban eguna iritsiko da. Perurena, frontzalariak, bertsolariak, eta etxeko gazteenei zuzendutako rock kontzertua eta Izotz taldea. Horrekin itzaliko da egun nagusia. Eta atzetik herri giroa nagusituko den jaietako azken eguna etorriko da. Honekin agur esango diegu aurtengo San Estebanei.



## KIROL KOPLA



**KOLDO LERTXUNDI**

Uztaileko lehen bi asteek ez dute eguraldi onik ekarri.

Hondartzara joan eta kirolen bat egin nahi izan duenak eguzki izpien gabeziari aurre egin behar izan die. Ez honi bakarrik, noski, Santixabelak ere tartean izan baititugu.

Eta Santixabelak aipatu dituzdanek, nork ez zituen ikusi frontoian jokaturiko saskibalo partiduak? Nik bai behintzat. Gehien gozatu zutenak Unai Lataillade, Aitor Yarza, Iñaki Flores eta Iban Salsamendi izan ziren, berak izan baitziren I. Saskixel sariaren irabazleak. On egin diezazuela Patri jatetxean egingo duzuen afariak.

Bestalde, ikustekoa izan zen eskubalo jokalaririk ohiek presoak Euskal Herriratzea aldarrikatuz jokatu zuten neurketa. Hura korrika egin beharra, hura baloia eduki beharra...

III. Areto futbol txapelketa ere azkenera iritsi zen joan den astean. Hainbat partidu jokatu ostean Billabonakoak garaile, hau da marka hau. Hala ere kontutan hartzekoa bi usurbildarrek jasotako sariak. Jose Antonio Piñas izendatu baitzuten txapelketako atezainik onena eta Guillermo azken partiduko jokalaririk onena.

Besterik ez, adiorik ez, gero arte baizik.

## USURBILDAR OLINPIKOAK

Usurbilek fama du sagardotak bertan duen tradizioagatik. Usurbildar ugari ere famatuak dira bai herrian eta herritik kanpo ere: Artze, Zumeta, Tapia... adibide gisa jar ditzakegu. Hala ere, kultur mundutik kanpo ere aurkitu ditzakegu usurbildar ezagunak. Atlantako Joku Olinpikoak gainean ditugunean, ezinbestekoa dugu aipatzea gure herrian jaiotako bi kirolari handi: Felix Mendizabal Mendiburu eta Xabier Carbayeda.



1891. urtean jaio zen Felix Usurbilen. Bere gurasoak, Jose Severio Mendizabal eta Baldomera Mendiburu izan ziren. Zurgina zen lanbidez eta korrikalaria afizioz, eta nahiz eta usurbilen jaio, bere bizitzako denbora gehiena Errenterian pasa zuen. Bertan hil zen 1960. urtean, 69 urte zituelarik. Askoren esanetan garai guztietako "sprinter" onena izandakoa omen dugu Felix Mendizabal.

Makala ez zelako hain zuzen, Amberes 1920ko eta Paris 1924ko olinpiadetan parte hartu zuen. Amberesen 100 eta 200 metrotako laisterketetan parte hartu zuen. 100 metroko laugarren saioan bigarren geratu zen, William Hunt australiarraren atzetik. Bere denbora 11 segundutakoa izan zen, marka pertsonalik onena. 200 metroan berriz hirugarren postuan iritsi zen bigarren saioan. Lau urte beranduago, **Parisen** 100 metroan lehenengo postua bereganatu zuen 16. saioan 11 segundu eta 4 dezimako denborarekin. 200 metroan berriz laugarren postuan geratu zen.

Xabier Carbayedak ere Seulen 1988an ospatu ziren Olinpiadetan parte hartu zuen. Bere bizikletarekin batera, taldeka jokatu zen erlojupekoan korrika egin zuen. 30 taldek parte hartu zuten lasterketa hartan. Xabier eta bere taldeki-deek 14. postuan amaitu zuten.



**HERRIAREN TXARTELA**  
5.000 PEZETAKO URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

H A M A B O S T E K A R I A  
**Noauai**

# Porrusalda

**A**tzegiko Kirol Elkarteak antolatutako Euskal Herriko igeriketa txapelketa ekainaren 8an burutu zen Altzako Kiroldegian. Bertan, **Txaro Furundarena** eta **Klaribel Zulaika** usurbildarrek parte hartu zuten. Klaribekek gainera crawl estiloan urrezko domina lortu zuen.

**J**oan den uztailaren 8an, Santixabel jaien amaieran, egunero bezala, **Nieves Aranburu**, eliza alboan dagoen egunkari kioskoran hurbildu zenean, kristalak hautsita aurkitu zituen. Eta ez da lehenengo aldia.

**O**larriondo eta Eguzkitzaldeko bide eta aparkalekuak



txukun txukun aurkituko dituzue hemendik aurrera, berrikuntza lanetan aritu baitira azken asteetan.

**U**surbil F.T.-k neskei futbol taldea osatzeko deialdia egiten die. Bileran abuztuaren 2an, arratsaldeko 8etan Harane futbol zelaian izango da. Harremanetarako deitu: 364225 (Haritz).

**P**atxi Añorga, Ramon Uribe eta **Xabier Aranburu** "Xomorro", euskal preso politikoei sakabanaketaren kontra eta beraien eskubideen alde daramaten borrokan, uztailaren lehen hamabostaldian zeldatik atera gabe egon dira.

# Kontzeju txikia

**A**txega jauregia usurbildar guztiok ezagutzen dugu, eta azken urteotan aldaketa handirik gabe gainera. Baina ez da denbora luzerako izango.

Hilabete honen amaierako plenoan Atxegaren erabilpena martxan jartzeko oinarriak

onartuko dira. Ondoren, interesatua dagoen edonork bere proiektua aurkeztu ahal izango du.

Erabilpenak izango dituen oinarrien artean, 50 urtetako alokairua izango dela da bat. Ondoren, alokairu hori luzatzeko aukera egongo da, baina

gehienez ere bost urteka. Bestalde, hasieran errenta baxuagoa izango da, baina barne zein urbanizazio obrak alokatzaileak ordaintzearen truke.

Oraingoz interesatu bat agertu da, eta honen asmoa ostalaritza zerbitzu bat jartzea da.



## URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

San Esteban zoriontuak!

San Esteban Tlf. 36 22 55



## MAHUKA GAZTE DENDA

ZORIONAK USURBILDAR GUZTIEI ONDO IGARO FESTAK!

Etxebeste,3 tlf 36 11 06 USURBIL



**Z**iortza Gazte Taldearen 12. kanpaldia da jadanik. Lehenengo txanda Sierra de Cameros aldean dabil uztailaren 9az geroztik. Bigarren txanda, hilak 18an, abiatu zenhamabostaldia igarotzera. Bigarren hauen berririk oraindik ez badugu ere, lehenengo txandakoen berri ematen duen eskutitza duzue jarraian datorrena.

Aupa Usurbil! Zer moduz zaudete?

Gu oso ondo gabiltza Peñaloscintosen. Eguraldiaren kekurik ez dugu behintzat. Dagoeneko beltz-beltz dagoenik ere bada, eguzkiak gogor jotzen baitu. Haize hotza eta gaueko freskotasuna ere aipatzekoak dira. Jadanik asmatuko zenuten ezta? Bai, Ziortza Gazte Taldearen kanpalditik idazten dizuet. Amari eta aitari idaztekoan nintzen, baina tira, herriak ere jakin beharko du guk hemen zer egiten dugun!

Patxi sukaldariak eta Josu pintxeak prestaturiko bazkari goxoa jan ondoren ari naiz idazten. Orain arte janariarekin kekurik ez. Okerrena ontziak garbitu beharra. Izan ere etxean ez bezala hemen bakoitzak bereak garbitu behar izaten ditu. Honetaz gain taldeka banatuta gaude, aldian behin sukaldeko ontziak garbitu, ontziak lehortu, kanpinak eta jangelako mahaiaik garbitu behar izaten ditugu goizez nahiz arratsaldez. Hala ere, aldizka Gaizka eta Jon bezalakoak ihes egin nahian, Enrike eta Mainer uzten ez badiete ere.

Momentu honetan sukalde gaineko zuhaitzaren azpian nago, Leire, Idoia eta Aroarekin batera. Urtegira bainua hartzera jaisteko hamabost minutu falta dira, eta Aitor monitorea darabilkit aldamenean



nori idazten ari naizen jakin nahian. Gainera gaur tarteoak(14-15 urte) bakarrik gaude, handiak (15-16 urte) bost egunetarako ibilaldira joan baitira, Laguna Negrara hain zuzen ere. Ikustekoak ziren Xabier eta Olatzen aurpegiak.

Gu bihar goaz lau egunetarako eta izugarritzko




gogoia dut. Bi taldetan banatuko gaituzte bide ezberdinetatik Mansillara joateko. Lehenengo ibilaldian Santa Ines mendian izan ginen(1642 m.). Gogorra, baina hala ere primeran ibili ginen. Bestela galdetu Urko, Joseba eta Josuri, hamar neska izan baitzituzten alboan. Honez gain txutxumutxu ugari, Intzaren mutilla..., Mainerrena..., Ainhoarena...

Egunik onena atzokoa izan zen, "Expediente x" eguna. Esnatu eta kanpinetik ateratzeko monitorea detektibe jantzita etorri zitzaizkigun. Kosta zitzaien gu esnatu, kanpinetik atera eta detektibe akademian sartzea, batez ere Iban eta Irati. Eta Garikoitzek harrapatu zuen moskeoa? Beno, beno. Susto handiena Luis Marik eman ziguna. Gosaltzen ari ginela, zorabiatu eta ospitalera eramaten ez dute ba? Idoia eta Alazne kezkatuta. Gauean berriz, hilerriralmajinatu: gu detektibe kasuak asmatzen; monitorea guri sustoak ematen; gu ikaratuta, bestela galdetu Arantza, Ainhoa eta Jaioneri. Eta bapatean... zas! Luis Mari azaltzen da. A ze sustoa, bertan gelditzeko modukoa.

Beno, agurtzera noa. Gogoratu uztailaren 21ean arratsaldeko zazpiak aldean hor izango gara. Muxu bat.

**Amona Joxepina**

# SALTXIPI



## JATETXEA

*Txokoalde, z/g  
Usurbil*

*Tlf. 36 11 27 - 37 10 94*

Ondo pasa jaiak!

# alamandegi TABERNA - JATETXEA

*Tlf. 36 28 49 - ZUBIETA - Gipuzkoa*

## UZTAILAK 18

- Uztailak 18tik 22ra bitartean Odol emaleek eginiko inkesta iritsiko zaigu etxeetara.
- 18an hasi eta abuztuaren amaiera arte XXIV. Pelota Txapelketa izango da. Ostegun, ostiral eta larunbatetan jokatu dira partiduak. 21 heldu eta 20 jubentilek parte hartuko dute. Usturbi ordezkaritza Izagirre-Castresana eta Matxain-Berroetak osatuko dute.

## UZTAILAK 20

- Gure Pakea Zahar egoitzakoak irteera bat egingo dute Arabako Errioxara.

## UZTAILAK 21

- Piragua ikastaroa Orion. Bertan apuntatzeko Oiaro kiroldegira hurbildu, uztailak 21a baino lehenago. Ikastaroa uztailak 22tik 26ra bitartean izango da. Prezioa 5.000 pezetakoa da.

## ABUZTUAK 23

- Aitzaga Elkarteak antolatuta, "Off-eko maitasuna" filmea ikusi ahal izango dugu frontoian.
- Aitzaga tabernan bertan eta abuztu osoan zehar Mattin komikilariaren lana ikusgai izango da.

## ABUZTUAK 30

- Usturbi Gazte Asanbladak antolatuta, kontzertua.

## ABUZTUAK 31

- Organujole errusiar ospetsu baten eskutik, kontzertua Salbatore deunaren parrokiaren, arratseko 19.45etan.



*Mattin komikilariak 1996ko uztailak 13an Euskaldunon Egunkarian argitaratutako komikia.*

# BUGATI ZALDITEGIA

- \* Zaldian ibiltzeko ikastaroak
- \* Zaldien zainketa
- \* Ferraketa
- \* Ibilaldiak
- \* Egun bat edo gehiagorako irteerak



## BUGATI JATETXEA

- Berezitasunak:
- \* Txuleta eta saiheskia
  - \* Tortilak eta entsalada

**Santioak  
ondo pasa!**



Hipodromo pasealekua, z/g

☎ 37 14 12

**ZUBIETA**

*San Esteban jai zoriontsuak pasa!*

**ZABALEA  
NEKAZAL  
TURISMOA**

Zabalea baserria  
San Esteban Tlf. 36 12 61



**MAPFRE  
ASEGURUAK**

*Ana Olasagasti*


Etxebeste kalea, 9  
20170 Usturbi

Tlf. 36 00 83



P  
E  
L  
L  
O  
  
E  
T  
A  
  
L  
O  
N  
T  
X  
O


Mane Bruño



## TABERNA

Pintxo bereziak  
eta  
giro aparta

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17



IRAZU 9 37 00 17

**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**  
pintxoak eta  
bokatak

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PERE-MOSSO NENNINGER

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL



argazkia: J.Lizeta

Aurreko aleko lehiaketaren erantzuna:  
14. maskota. Izena... norberak jarriko zion, ezta?  
Dena dela, asmatzailerik ez da egon.

Ea oraingoa asmatzen duzuen eta erantzutera animatzen zareten.

### ZENBAT METRO DITU USURBILGO

## ELIZAREN DORREAK?

Idatziezaguzu: NOAUA! aldizkaria, Kale Nagusia 27, 20170 Usurbil, postaz edo zuzenean gure buzoira boteaz. Asmatzaileen artean **Sekaña jabetxean** bi pertsonentzat afari goxoa zozketatuko da.

## Majerako Kondarrak

### Etxebizitzak

- **Kaleberri.** 90 metroko etxebizitza salgai Bizkarre kalean. 27 metroko egongela, bainugela eta komuna hornituak, berokuntza zentrala, trastelekua. Akatsik gabekoa. Tlf. 36 02 34 - 36 62 29

- **Santuenea.** Etxebizitza salgai: bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldekoa. Tlf. 42 09 43

Zerbait saldu, erosi, trukatu edo eskeintzeko baduzu aukeran, zure iragarkiak dohainik **Majerako Kondarrak** sail honetan.

### Noaia! hamabostekaria.

Kale Nagusia, 27

Tlf. 36 03 21

## Ezkontza eta ospakizunetarako musika taldea



## Garai Bat Banda

Tlf. 36 66 61 (Nerea) LASARTE

## IRUIN ASTIAZARAN



Santio Zoriontsuak igaro!

Uztailean, astelehenak ezik, gauero zabalik. **BOTILAKO SAGARDOA.**

☎ 36 12 29 - 36 01 17

ZUBIETA

**U**rtero bezala, aurten ere, Santixabeletan, Bertso-paper lehiaketa izan da. Guztira zazpi bertso paper aurkeztu dira, Bordatxoko "rotonda"-ri bereak eta bi atera asmoz. Hauetatik bik ez zituzten lehiaketako arauak betetzen. Irabazlea Joxe Mari Arzalluz, bigarrena Nikolas Izeta, eta hirugarren Maialen Sagarna eta Elixabete Udabe izan ziren. Hona hemen irabazlearen bertso-paperak.

- 1 U**daletxean bildu  
hamairu gizon da  
ebatzi zuten: " Egin  
behar da rotonda".  
Bordatxon Torregaraik  
lehenengo erronda.  
Horko lanak gogora  
ekartzea on da.  
Hori ez bait da egin  
tabernan egonda.
- 2 P**uska bat baratza ta  
bueltan sasía...  
Bordatxo aurrean zen  
bide nahasia.  
Aspalditik zegoen  
premi ikusia.  
Arkitekto askoren  
kaskoa hausía.  
Azkenean izan du  
jardinen grazía.
- 3 B**urnizko langa horiz  
bideak itxita,  
lanean hasi ziren,  
nagiak utzita.  
Baldin euría bazen,  
katiuskak jantzita,  
lur-lanak lehenengo,  
behetik hasita.  
Gero dena berdindu,  
harkaitzak hausita.
- 4 A**utomobilak pasa  
behar zuten eta  
breaz estali zuten  
zuloak beteta.  
Gero ofizialek  
aztertu maketa:  
espaloia, jardina,  
gainera pareta...  
harria ta mailua,  
masa ta pareta.
- 5 A**zal grisa hausi ta  
kolore berriak  
mailuari dizkio  
aurkeztu harriak.  
Harginarentzat inoiz  
momentu larriak:  
karga mugi ezinik  
miatu gerriak.  
Bai omen dira puska  
gogoangarriak.
- 6 D**enok perito ginen,  
hemengo ta hango...  
Bagenekien gero  
nola zen izango...  
Otartekoa nola  
izkutuan jango  
langileek bazuten  
komeria pranko.  
Zaindu ez ditugunik  
ez nuke esango.
- 7 H**arginen lanak daude  
dotore eginak:  
Lerroen kurbaturak  
lasai eta finak.  
Erremateak beriz  
erabatapainak.  
Horma irmo lodiek  
biserazko gainak.  
Erortzeko beldurrik  
ez dauka Gaztainak.
- 8 E**rdi-erdian dute  
kokatu lan zaila:  
karaitzez egindako  
hesi borobila.  
Diseinatu duena da  
konpas abila:  
jiran badu motoa  
ta automobila.  
Paroan geratu da  
horko aguazila.
- 9 I**nguruan bada hor  
ugari jardina.  
Landarez egin dute  
hornitze bikaina.  
Pago, lizar eta abar...  
hemengo eragina.  
Arrotza da, ordea,  
beren eragina,  
Belgikatik ekarri  
diguten hagina
- 10 G**uztia osatzeko,  
beti zerbait faltan:  
Gaztainak zuriketa  
behar du fatxadan.  
Bordatxok aterpea  
jarri gaurko modan.  
Hirugarren, beriz,  
Udalaren baitan:  
hortik gora pareta  
beheko neurritan.

Maita ezazu  
 behinola zugan maitasuna piztu zuen hura.  
 Maita ezazu  
 aspalditxoan etxean zeurekin duzun hori;  
 maitatu,  
 harengan behin maitagarri izan zitzaizun  
                                 lore kuttun hura  
                                 maitagarri duzu eta orain,  
 orduan bezala, orduantxe bezain:  
                                 maitagarria bait da beti,  
                                 maitagarri izan dena behin!

Maita ezazu gaur  
 alboan duzuino; ez aspertu  
                         egunero ondoan duzulako,  
 bihar ere hor izango duzulakoan;  
  
 maitatu gaur, agian bihar  
 ez bait duzu hor izango nor maitatzeko,  
 zugan maitasuna sutan irauterazteko;  
 joana izango duzu eta ustekabe  
                                 agurrik egiteko ere astirik gabe.

Maita ezazu orain oraino,  
 maitatu bihotz hondotik bihotz hondoraino;  
 orain, oraintxe, sakonkienik maita dezakezunean,  
 damu ez dezazun gero  
 zeurekin zenuenean beroago ez maita izana,  
 zeuretik hari kuttunagorik ez emana.

Maita ezazu  
 lehenengoz ikusi zenuenean bezala,  
 azkenengoz ikustera bazindoaz bezalaxe;  
 maitatu,  
 maitatu, ezin baduzu ere;  
 maita ezazu desesperatuki bederen,  
                         maitasunik gabeko bizi  
 heriotz beltzagarik ez dago eta.

Maite ez duena ez bait da bizi;  
 zutik ibili arren, hilik dago,  
                                 ez dago harengan bizirik.

Maita ezazu zeure ondoan  
                                 zeurekin urtetan bizi den maitea;  
 maitatu bat batean  
                                 eta bete betean  
 bera bakarrik balitz bezala munduan,  
 besterik ez balitz bezala inguruan...  
  
 eta beste guztiak ere maitatuko dituzu  
 zeure bihotzeko kuttun bakarria balira bezala!

***Joxe Antonio Artze "Hartzut"***